


EDT 6 TOPAKETA ENCUENTRO

DANTZA, TERAPIA, MUGIMENDUA ETA OSASUNA
DANZA, TERAPIA, MOVIMIENTO Y SALUD



IRAILAK 4 - 5 - 6
DE SEPTIEMBRE

TABAKALERA.
DONOSTIA.

EUS

EDT, dantza, terapia, mugimendu eta osasunari buruzko topaketa hauek, seigarren urtez jarraian, ikasturte hasieran proposatu ditugu, zainketarako tresnak eta formatuak eskaintzeko asmoz.

Entzuteko gune bat izatea nahi dugu, mugimenduan eta behaketan oinarrituta gure gorputzak egoera onean mantenduko dituzten metodologiei buruzko dibulgazio-gune bat.

Oso beharrezkotzat jotzen dugu barne-entzuketa zainketa horiek sustatzeko, azpimarratzeko eta artatzeko.

Denbora eskaini nahi diogu "zaintzearen" kontzeptuari, eta, horrela, dantzaren sektore profesionalerako jardunbide egokiak sortu nahi ditugu, hori funtsezkoa baita lanbide osasuntsu eta indartsu baterako.

Lan-esparru komunitario eta zeharkakoa eraikitzea antzeko sektoreetako profesionalekin, hala nola fisioterapia, psikologia, psikoterapia eta/edo nutrizioa.

Beste batzuetan bezala, taldeko ikerketa sustatzea interesatzen zaigu, norberaren eta taldearen esperientzia balioztatuz metodologiak elkarrekin sortzeko.

"Aurten, bereziki, begirada transgenerazional batean jarri nahi dugu arreta, dantza eta mugimendua giza garapenaren eta eboluzioaren etapa guztiak zeharkatzen dituzten lengoia gisa ulertuz."

Aztertu nahi dugu nola gordetzen dituzten gorputzek belaunaldien artean transmititzen diren memoriak, kontakizunak, ikaskuntzak eta lotzeko moduak, eta nola ireki ditzakeen gorputz-praktikak kontzientziatzeko, eraldatzeko eta erreparatzeko espazioak.

Dantza, praktika artistiko edo profesional gisa ez ezik, haurtzaroak, gaztaroak, helduaroak eta zahartzaroak lagun ditzaketen osasun, komunikazio eta topaketarako tresna gisa ere ulertzen dugu, bizitzako etapa bakoitzaren behar eta aukeretara egokituz.

Mugimenduak gure historia indibidualeta kolektiboan ezagutzeko aukera emango digun espazioak eraikitzen jarraitu nahi dugu, zaintzaren kultura sentikorragoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa sustatuz pertsonentzat eta komunitatearentzat.

ADDEko EDT Batzordea.

ES

Estos encuentros EDT, de danza, terapia, movimiento y salud, ya en su sexto año consecutivo, vienen propuestos a principios de curso con la idea de proporcionar herramientas y formatos de cuidado.

Queremos que sea un espacio de escucha, de divulgación sobre metodologías que mantengan en un buen estado nuestros cuerpos desde el movimiento y la observación.

Consideramos muy necesaria la escucha interna para fomentar, enfatizar y atender estos cuidados.

Queremos dedicar tiempo al concepto de "cuidar" y así generar buenas prácticas para el sector profesional de la danza, algo clave para una profesión sana y fuerte.

Construir un marco de trabajo comunitario y transversal con otras profesionales de sectores afines como la fisioterapia, la psicología, la psicoterapia y/o la nutrición.

Como en otras ocasiones, nos sigue interesando fomentar la investigación grupal para co-crear metodologías a través de la validación de la experiencia personal y grupal.

"Este año queremos poner especialmente el foco en una mirada transgeneracional, entendiendo la danza y el movimiento como lenguajes que atraviesan todas las etapas del desarrollo y la evolución humana."

Nos interesa investigar cómo los cuerpos guardan memorias, relatos, aprendizajes y modos de vincularnos que se transmiten entre generaciones, y cómo la práctica corporal puede abrir espacios de conciencia, transformación y reparación.

Entendemos la danza no solo como práctica artística o profesional, sino también como una herramienta de salud, comunicación y encuentro que puede acompañar la infancia, la juventud, la adultez y la vejez, adaptándose a las necesidades y posibilidades de cada etapa vital.

Queremos seguir construyendo espacios donde el movimiento permita reconocernos en nuestra historia individual y colectiva, favoreciendo una cultura del cuidado más sensible, inclusiva y sostenible para las personas y para la comunidad.

Comisión EDT de ADDE.

ADDE
DANTZA

EDT 6 TOPAKETA ENCUENTRO

DANTZA, TERAPIA, MUGIMENDUA ETA OSASUNA
DANZA, TERAPIA, MOVIMIENTO Y SALUD

IRAILAK
4 - 5 - 6
TABAKALERA
(3. solairua)
DONOSTIA

- 15.30 Ateen irekiera eta ongietorria
- 16.00 - 17.00 Solasaldia “**Komunitatean Dantzan: mugimenduaren bidez elkar aurkitzea**”
Gidaria: **Laura Gómez**
- 17.00 - 19.30 Praktika. “**NUNAVUT: glaziarrek betirako irauten duten lurraldea**”
Gidaria: **Myriam Pérez Cazabon**

doan,
aurretuiko
izen-
ematea

4

ostirala

5

larunbata

- 10.00 Ateen irekiera
- 10.15 - 12.15 Solasaldia “**Elkar aurkitzeko dantza. Gorputza, komunitatea eta sorkuntza partekatua**”

+ Praktika. “**Dantza, topagune. Praktika artistikoak komunitateekin eta belaunaldi arteko harremanekin**”
Gidaria: **Hazi Kultur Elkarte**
- 12.30 - 14.00 Praktika. **Belaunaldi Arteko Dantza Tailerra: “Mugimendu partekatua”**
Gidaria: **Leire Otamendi**
- 14.00 - 16.00 Etenaldia bazkaria
- 16.00 - 18.30 Praktika. “**Gorputz fisiko eta emozionala faszien bidez**”
Gidaria: **Mikel Aristegui**

- 10.00 Ateen irekiera
- 10.15 - 11.15 Praktika. “**PERLAK, azaleratzen dena partekatu**”
Gidaria: **EDT Batzordea**
- 11.15 - 13.45 Praktika. “**Gorputz erabilgarria, mugimendu mekanikak**”
Gidaria: **Igor Calonge**
- 13.45 - 14.15 Itxiera

6

igandea

EDT 6 TOPAKETA ENCUENTRO

DANTZA, TERAPIA, MUGIMENDUA ETA OSASUNA
 DANZA, TERAPIA, MOVIMIENTO Y SALUD

4 - 5 - 6
 SEPTIEMBRE
 TABAKALERA
 (3ª planta)
 DONOSTIA

- 15.30 Apertura de puertas
- De 16.00 a 17.00 Charla. **“Komunitatean Dantzan: encontrarnos a través del movimiento”**
 Guía: **Laura Gómez**
- De 17.00 a 19.30 Práctica. **“NUNAVUT: glaziarrek betirako irauten duten lurraldea”**
 Guía: **Myriam Pérez Cazabon**

gratuito,
 inscripción
 previa

4
 viernes

5

sábado

- 10.00 Apertura de puertas
- De 10.15 a 12.15 Charla. **“Danza para encontrarnos. Cuerpo, comunidad y creación compartida”**
 + Praktika. **“La danza como espacio de encuentro. Prácticas artísticas con comunidades e intergeneracionalidad”**
 Guía: **Hazi Kultur Elkartea**
- De 12.30 a 14.00 Práctica. **Taller de Danza Intergeneracional: “Moverse para Conectar”**
 Guía: **Leire Otamendi**
- De 14.00 a 16.00 Descanso comida
- De 16.00 a 18.30 Práctica. **“Cuerpo físico y emocional a través de las fascias”**
 Guía: **Mikel Aristegui**

- 10.00 Apertura de puertas
- De 10.15 a 11.15 Práctica. **“PERLAS, compartir lo que emerge”**
 Guía: **Comisión EDT**
- De 11.15 - 13.45 Práctica. **“Cuerpo útil, mecánicas de movimiento.”**
 Guía: **Igor Calonge**
- De 13.45 a 14.15 Cierre

6
 domingo

EUS “Komunitatean Dantzan: mugimenduaren bidez elkar aurkitzea”

Hitzaldi honetan Komunitatean Dantzan proiektuaren esperientzia partekatzea proposatzen da. Proiektu hau 2023az geroztik garatzen ari da eta bere helburua da jakinmina duten pertsoneri dantza hurbiltzea, gorputzaren bidez mugitzeko, elkartzeko eta gozatzeko.

Dantzan ikasteko gune bat ez ezik, dantza deskubritzeko tresna gisa ere ulertzen du Komunitatean Dantzan proiektuak. Hilean behin egiten diren hainbat topaketetan, artista ezberdinek beren sortze-prozesuak, tresna pedagogikoak eta mugimendura hurbiltzeko moduak partekatu dituzte, espazio ireki, malgu eta belaunaldien artekoa sortuz.

Saioan zehar proiektuaren egitura, prozesuan sortutako ikaskuntzak eta praktika artistiko komunitarioari buruzko zenbait hausnarketa aurkeztuko dira, topaketaren, parte-hartzearen eta gorputzetik bizikidetzarako espazioak eraikitzearen balioan arreta jarritz.

ES “Komunitatean Dantzan: encontrarnos a través del movimiento”

Esta charla propone compartir la experiencia de Komunitatean Dantzan, un proyecto que se viene desarrollando desde 2023 y que busca acercar la danza a personas curiosas con ganas de moverse, encontrarse y disfrutar a través del cuerpo.

Fuera de ser un espacio para aprender a bailar, Komunitatean Dantzan entiende la danza como una herramienta de descubrimiento. A lo largo de varios encuentros mensuales, diferentes artistas han compartido sus procesos creativos, herramientas pedagógicas y formas de acercarse al movimiento, generando un espacio abierto, flexible e intergeneracional.

Durante la sesión se presentará la estructura del proyecto, los aprendizajes surgidos en el proceso y algunas reflexiones sobre la práctica artística comunitaria, poniendo el foco en el valor del encuentro, la participación y la construcción de espacios de convivencia desde el cuerpo.



EUS **LAURA GOMEZ LATASA** dantzaria eta dantza bitartekaria da. Dantzertin eta Andaluziako Dantza Zentroan trebatu zen. 2020tik 2023ra bitartean Dantzaz-eko kide izan zen interprete gisa, hainbat koreograforekin sormen prozesuetan parte hartuz. 2023tik Dantzaz-en bitartekaritza lerroa koordinatzen du, hezkuntza eta komunitate proiektuak garatuz, eta Gipuzkoako Dantzaguneko taldeko kide da, non artisten arreta eta harrera lanetan aritzen den. UNEDen Gizarte Hezkuntzako ikasketak eginez osatzen du bere lana.

ES **LAURA GÓMEZ LATASA** es bailarina y mediadora de danza. Se formó en Dantzerti y en el Centro Andaluz de Danza. Entre 2020 y 2023 formó parte de Dantzaz como intérprete, participando en procesos creativos con diferentes coreógrafos y coreógrafas. Desde 2023 coordina la línea de mediación de Dantzaz, desarrollando proyectos educativos y comunitarios, y forma parte del equipo de Gipuzkoako Dantzagunea, donde trabaja en la atención y acogida de artistas. Complementa su labor con estudios de Educación Social en la UNED.

EUS “NUNAVUT: glaziarrek betirako irauten duten lurraldea”

<<Noiz utzi genion haur izateari? Noizbait utzi al diogu? Noizbait utziko al diogu?

NUNAVUT behin izan gineneko lurraldea da, denbora izozturik mantentzen denekoa, glaziarrek betirako irauten dutenekoa. Bertan ikasi genuen zuhaitzetatik zintzilika ibiltzen, zuhaitzik gabeko eremuetan. Hor jaso genuen piztiaren besarkada, eta hor izan ziren aske haizeak korapilaturiko gure adatsak.

Ahazturatik berreskuratuko al dugu, noizbehinka, bertara itzultzeko bidea...?>>

NUNAVUT izenak “gure indarra” edo “gure lurra” esan nahi du Inuiten hizkuntzan. Geurea, generazio ezberdinetako pertsonen bilguneak (ber)eraikitze eta afektuzko hartu-emanak (ber)aktibatze espazioen aldarrikapena da: munstroak, maitasuna eta jolasa gailentzen diren lurraldea. Hau, emozioek eta iruditeriak eskeintzen dizkiguten paisaia anitzez eraikitzen da: ipuin kontaketa inspirazio iturri hartuta eta gorputz, soinu eta materialen plastikotasunetik, kontaketa-ekintza denon eskura jarritz.

ES “NUNAVUT: el territorio donde los glaciares perduran para siempre”

<<Cuándo dejamos de ser niños? ¿Lo hemos dejado alguna vez? ¿Lo dejaremos alguna vez?

NUNAVUT es el territorio donde una vez fuimos, donde el tiempo se mantiene helado, donde los glaciares duran para siempre. Allí aprendimos a andar colgando de los árboles en zonas sin árboles.

Ahí recibimos el abrazo de la bestia y nuestros cabellos anudados fueron sueltos por el viento.

¿Recuperaremos del olvido, de vez en cuando, el camino de vuelta...?>>

El nombre NUNAVUT significa “nuestra fuerza” o “nuestra tierra” en el idioma de Inuit.

La nuestra es una reivindicación de espacios para (re)construir puntos de encuentro y (re)activar intercambios afectivos de diferentes generaciones: una tierra donde predominan los monstruos, el amor y el juego.

Esto se construye a partir de la diversidad de paisajes que nos ofrecen las emociones y el imaginario: desde la narración de cuentos como fuente de inspiración y desde la plasticidad de cuerpos, sonidos y materiales, poniendo la narración al alcance de todos.



ARGAZKIA / FOTOGRAFÍA:
Nagore Legarreta.
NUNAVUT.

EUS **MYRIAM PÉREZ CAZABON** 2004 urtetik dantza garaikidean sortzaile, dantzari eta irakasle arloak uztartuz dihardu, musika, zinea, antzerkia, argazkilaritza edota literaturarekin hartu-emanen. 2016tik norbere sorkuntzak NERI(H)ARI izenpean biltzen ditu, proposamen hibridoetarantz bide eginez. Bere lengoia dantza garaikide biluzi bezala definitzen du: sotila, gardena eta zehatza; poetikotasuna eta iruditegia, pertsonen izaera zaugarria eta prozesuen ikusgarritasuna zainduz, eta dantzaren berezko transmisiorako balioa azpimarratuz. Txikitik eta gertutik lantzea du hautua, “Arte-zaintzatik” artisautzaren moduei entzunez.

ES **MYRIAMPÉREZCAZABON** Desde el año 2004 trabaja como creadora, bailarina y profesora de danza contemporánea, interactuando con la música, el cine, el teatro, la fotografía o la literatura. Desde 2016 agrupa sus creaciones bajo el nombre de NERI(H)ARI, abriéndose camino hacia propuestas híbridas. Define su lenguaje como una danza contemporánea desnuda: sutil, transparente y precisa; preservando la poética, el imaginario, el carácter vulnerable de las personas y la visibilidad de los procesos, y subrayando el valor para la transmisión natural de la danza. Opta por trabajar desde lo pequeño y lo cercano, escuchando maneras artesanas “Desde el cuidado artístico”.

EUS Solasaldia. “**Dantza, topagune. Praktika artistikoak komunitateekin eta belaunaldien arteko harremanekin**”

Nerabeekin, adinekoekin eta belaunaldien arteko taldeekin batera garatutako bitartekaritza artistikoko hainbat proiektu aurkeztuko dira hitzaldian. Mugimendu praktikek, sorkuntza garaikideko prozesuetara sartzeak eta esperientzia partekatuen eraikuntzak topaketa, partaidetza eta elkarrizketa espazioak sortzea ahalbidetu dutela partekatuko dugu. Esperientzia horietatik abiatuta, dantzak gorputzaren eta sorkuntza kolektiboaren bidez loturak aktibatzen, entzutea bultzatzeko eta komunitatea sendotzeko duen potentziala landuko dugu.

Praktika. “Elkar aurkitzeko dantza. Gorputza, komunitatea eta sorkuntza partekatua”


Ariketa somatikoaren eta inprobisazioaren tresnetan oinarritutako saio praktikoa, gorputza esnatzeko, entzumena fintzeko eta espazio partekatuen pertzepzioa zabaltzeko. Mugikortasun, arreta eta harreman proposamen errazen bidez, parte-hartzaileek espazioa bizitzeko eta taldearekin elkartzeko hainbat modu aztertuko dituzte. Praktika amaitzeko, erregistro-dinamika labur bat egingo da, eta gorputz-esperientzia paperera eramango da marrazkien, ibilbideen, trazuen edo aztarnen bidez, zeinak mugimenduaren oroimen gisa funtzionatuko baitute. Una invitación a comprender el cuerpo como lugar de experiencia, relación y creación, y a descubrir cómo pequeños gestos pueden generar espacios de cuidado, participación y encuentro.

ES Charla. “**Danza para encontrarnos. Cuerpo, comunidad y creación compartida**”

La charla presentará diferentes proyectos de mediación artística desarrollados junto a adolescentes, personas mayores y grupos intergeneracionales. Compartiremos cómo las prácticas de movimiento, el acceso a procesos de creación contemporánea y la construcción de experiencias compartidas han permitido generar espacios de encuentro, participación y diálogo. Desde estas experiencias abordaremos el potencial de la danza para activar vínculos, favorecer la escucha y fortalecer la comunidad a través del cuerpo y la creación colectiva.

Práctica. “La danza como espacio de encuentro. Prácticas artísticas con comunidades e intergeneracionalidad”

Una sesión práctica basada en herramientas de la práctica somática y la improvisación para despertar el cuerpo, afinar la escucha y ampliar la percepción del espacio compartido. A través de propuestas sencillas de movilidad, atención y relación, las personas participantes explorarán diferentes formas de habitar el espacio y de encontrarse con el grupo. La práctica concluirá con una breve dinámica de registro, trasladando la experiencia corporal al papel mediante dibujos, recorridos, trazos o huellas que funcionarán como memoria del movimiento. Una invitación a comprender el cuerpo como lugar de experiencia, relación y creación, y a descubrir cómo pequeños gestos pueden generar espacios de cuidado, participación y encuentro.



ARGAZKIA / FOTOGRAFÍA: Paula Gutiérrez-Ponte.

Realizada en el taller de movimiento y danza sin edad inspirado en la exposición de Nicholas Nixon en Sala Rekalde con personas de tercera edad.

EUS **ANE ZAPIRAIN GOROSTEGI** dantza garaikidearen esparruan garatzen du bere praktika, sortzaile, interprete eta bitartekari artistiko gisa. Dantza Bilaka 2023 jaialdian hautatutako Agortu piezarekin hasi zuen bere ibilbidea, eta hainbat jaialditan aurkeztu zuen. Gaur egun, ekoizpen hauen parte da: Olatz de Andresek zuzendutako Cuerpos que se Entregado a Eliminar eta Monica Valencianoren Nada y Ave. Aldi berean, nerabe, adineko pertsona eta kolektibo ezberdinekin bitartekaritza artistikoko proiektuak bultzatzen dituen Hazi Kultur Elkarteko kide da, dantza topaketa, parte-hartzea eta komunitatea sortzeko tresna gisa ulertuz. Bere praktikak sorkuntza garaikidea, gorputz lana eta hezkuntza eta gizarte ekintza integratzen ditu.

ES **ANE ZAPIRAIN GOROSTEGI** desarrolla su práctica en el ámbito de la danza contemporánea como creadora, intérprete y mediadora artística. Inicia su trayectoria con Agortu, pieza seleccionada en Dantzan Bilaka 2023 y presentada en diversos festivales. Actualmente forma parte de las producciones Cuerpos que se Entregan a Aquello que va a Desaparecer, dirigida por Olatz de Andrés, y Nada y Ave, investigación de Mónica Valenciano. Paralelamente, es parte de la Asociación Cultural Hazi que impulsa proyectos de mediación artística con adolescentes, personas mayores y colectivos diversos, entendiendo la danza como una herramienta para generar encuentro, participación y comunidad. Su práctica integra la creación contemporánea, el trabajo corporal y la acción educativa y social.

EUS **AINHOA PARDELLAS** Diziplina anitzeko artista, arte plastikoetan (EHU) eta dantzan trebatua, jardunean dauden sortzaile nazionalekin (MUTIS espazioa). Hainbat proiektu artistiko eta irakaskuntza uztartzen ditu, tailer eta eskola erregularren bidez, hainbat hezkuntza-gunetan.

ES **AINHOA PARDELLAS** Artista multidisciplinar formada en artes plásticas (UPV) y danza con diferentes creadores nacionales en activo (MUTIS espazioa). Compagina diferentes proyectos artísticos con la docencia mediante talleres y clases regulares en distintos espacios educativos.

EUS

Belaunaldi Arteko Dantza Tailerra: Mugimendu partekatua.

Noiz izan zen aitona-amonekin azkenekoz dantzatu zenuen aldia? Edo mugimenduaren bidez gazte energiarekin konektatu zinen azken aldia?

Topaketarako, zaintzarako eta adierazpenerako gune paregabe batera gonbidatzen zaituztegu. Hau ez da ohiko dantza tailer bat. Belaunaldien arteko mugak gainditzeko eta, gorputzaren bidez, orainean elkartzeko aukera bat da.

Bizitzako etapa ezberdinetako pertsonak elkartu nahi ditugu. Nerabeak, bilobak eta haien aitona-amonak, edota une berezi bat partekatze gogoia duten adineko pertsonak biltzea da gure helburua.

Ez duzu dantzako esperientziarik behar!

Ez du axola sekula dantzatu ez baduzu. Ez dugu urrats perfekturik edo koreografia konplexurik bilatzen. Baldintza bakarra mugitzeko eta partekatze gogoia izatea da. Tailerra parte-hartzaile bakoitzaren gaitasun fisikoetara egokituta egongo da.

ES

Taller de Danza Intergeneracional: Moverse para Conectar.

¿Cuándo fue la última vez que compartiste un baile con tus abuelos? ¿O que conectaste con la energía de los más jóvenes a través del movimiento?

Te invitamos a un espacio único de encuentro, cuidado y expresión. Este no es un taller de danza convencional. Es una oportunidad para derribar barreras generacionales y encontrarnos en el presente a través del cuerpo.

Buscamos juntar a personas de diferentes etapas de la vida. Queremos unir a adolescentes, nietas y nietos, junto a sus abuelos, abuelas o personas mayores que tengan ganas de compartir un momento especial.

¡No necesitas experiencia!

No importa si nunca has bailado. No buscamos pasos perfectos ni coreografías complejas. El único requisito es tener ganas de moverte y de compartir. El taller está adaptado a las capacidades físicas de cada participante.



EUS

Gasteizko José Uruñuela dantza klasikoko erdi mailako ikasketak burutua 2007-2012 urteetan zehar. Jarraian, Rotterdam hiriko Codarts Dance Performance unibertsitatean dantza garaikideko ikasketetan graduatua. Bertan mundu mailan ezagunak diren koreografoekin lan egin eta interprete lanetan lehen urratsak emana. Euskal herrira itzuli eta bide berbera jarraituz bertako dantza konpainia desberdinetan darrai lanean dantzari moduan, esate baterako: Lasala Dantza konpainia, Cielo Raso (Igor Calonge), Neri(h)Ari konpainia (Myriam Pérez Cazabon), Amaia Elizaran dantza konpainia Kukai Dantza konpainia, Doos kolektiboa (Eva Guerrero)...

Horrez gain, "Dantza" eta "Gaua" pelikuletan dantzari gisa ibilia eta "Akelarre" pelikulan koreografoaren laguntzaile zein "doble" lanetan aritua.

Interprete lanez gain talde eta leku desberdinetan dantza irakasle lanetan dihardu, gazte, heldu eta familian klaseak elkarbanatzen.

ES

Realizó los estudios de grado medio de danza clásica en el Conservatorio Municipal de Danza José Uruñuela de Vitoria-Gasteiz durante los años 2007-2012. Posteriormente, se graduó en estudios de danza contemporánea en la universidad Codarts Dance Performance de la ciudad de Rotterdam. Allí trabajó con coreógrafos reconocidos a nivel mundial y dio sus primeros pasos como intérprete. Tras regresar al País Vasco, continuó con esa misma trayectoria y sigue trabajando como bailarina en diferentes compañías de danza locales, tales como: Lasala Dantza konpainia, Cielo Raso (Igor Calonge), Neri(h)Ari konpainia (Myriam Pérez Cazabon), Amaia Elizaran dantza konpainia, Kukai Dantza konpainia y Doos kolektiboa (Eva Guerrero)...

También ha participado como bailarín/bailarina en las películas "Dantza" y "Gaua", y ha trabajado como asistente de coreografía y "doble" en la película "Akelarre".

Por otro lado imparte clases de danza a jóvenes, mayores y familias.

EUS “Gorputz fisiko eta emozionala faszien bidez”

Praktika mugimenduan egingo dugu, auto-pertzepzioan eta faszien lekualdatzean oinarrituta, denbora emango dugu praktika eta teoria lan-ildo bera direla senti daitezen. Askotan, kosta egiten zaigu bizi izan duguna definitzen duten hitzak jartzea. inflexio puntu bat egingo diogu komunikatzen dugun moduari, bai bizi izan duguna definitu eta azaltzeagatik, bai gorputz lanean ari garenean adimenak duen papera aztertzeagatik.

Gorputza gara, emozioak eta adimena. Oreka partikularra eta indibiduala bilatuko dugu, geure burua errespetatuz eta zainduz. Geure buruari begirunea erakutsiz soilik izango dugu errazago eta erosoago besteak errespetatzea.

Mugimendu jarraituko tresnak erabiliko ditugu, authentic movement, CI (contact improvisation) eta Mikelek ia 30 urtetan fasziak lantzen eman duen lana, denbora naturala murrizten saiatuko gara, espazioan barruko bulkadak eta mugimenduak diseinatzeko.

Mugimendua komunikatzeko modu gisa, hitzak mugimenduan dauden emozio gisa.


ES “Cuerpo físico y emocional a través de las fascias”

Haremos una práctica en movimiento basada en la auto-percepción y el desplazamiento de las fascias donde daremos tiempo para que la práctica y la teoría se sientan como la misma línea de trabajo. Muchas veces, nos cuesta poner palabras que definan lo que hemos vivido. haremos un punto de inflexión a cómo comunicamos, tanto por definir y explicar lo que hemos vivido como por analizar el papel que tiene el intelecto cuando trabajamos corporalmente.

Somos cuerpo, emociones e intelecto. Buscaremos el equilibrio particular e individual respetándonos y cuidándonos. Solo respetándonos a nosotras mismas nos resultará más fácil y cómodo respetar a las demás.

Usaremos herramientas de movimiento continuo, authentic movement, CI (contact improvisation) y el trabajo de las fascias que viene ejerciendo Mikel desde hace ya casi 30 años e intentaremos reducir el tiempo natural para diseñar en el espacio los impulsos y los movimientos internos.

El movimiento como forma de comunicación, las palabras como emociones en movimiento.



EUS **MIKEL ARISTEGUI** Galizian bizi eta lan egiten du duela hamar urtetik, baina bere jaioterriarekin, Gipuzkoarekin, duen loturari eusten dio. ADDEko eta bere zuzendaritza batzordeko kide izan zen eta Nuria Perezekin batera Terapia, mugimendua eta osasuna, EDT Dantza Topaketak hasi zituen.

la 40 urteko ibilbide profesionala du interprete eta koreografo gisa, eta penintsulara itzuli zenetik, desgaitasuna duten kolektiboekin, autismoa dutenekin eta dantzaren eta sorkuntzaren gizarte lanean ari da buru-belarri.

Kultura-kudeatzaile gisa lan gehiago egiten du, beharragatik, dantza mugimenduan dagoen artearen adierazpen gisa defendatuz eta formatu berriak sortuz, bereziki landa-eremuan.

ES **MIKEL ARISTEGUI** Vive y trabaja en Galicia desde hace una década, aunque mantiene su vínculo con su tierra natal, Guipúzcoa. Fue miembro de ADDE y de su junta directiva e inició junto a Nuria Perez los Encuentros de Danza Terapia, movimiento y salud, EDT.

Tiene una carrera profesional como intérprete y coreógrafo de casi 40 años y desde que volvió a la península se está centrando en el trabajo con colectivos con discapacidad, con autismo y el trabajo social de la danza y la creación.

Ejerce más como Gestor Cultural por necesidad defendiendo la danza como expresión del arte en movimiento y creando nuevos formatos especialmente en lo rural.

EUS “PERLAK, azaleratzen dena partekatu”

Perlak bigunean sortzen dira, barrualdean, eta denborarekin zerbait solido bihurtzen dira, distiratsu, baliotsu. Horrela ulertzen ditugu gure esperientziak ere: zalantzatik, desiratik eta jakintzatik sortutako perlak bezala.

Topaketa hau perla horiek partekatzeko gonbidapena da. Geldiaraztea, kokatzea eta zaintzaren inguruko gure praktika, zalantza, desio eta metodologiei begiratzea proposatzen dugu. Gorputzen, galderen eta egiteko moduen gurutzaketa izango da. Perlak artikulatu, multzokatu eta eskainiko diren espazio bat, ez objektu bukatu gisa, baizik eta etorkizuneko erresonantziatarako hazi gisa.

ES “PERLAS, compartir lo que emerge”

Las perlas se forman en lo blando, en el interior, y con el tiempo se transforman en algo sólido, se vuelven brillantes, valiosas. Así también entendemos nuestras experiencias: como perlas nacidas del tránsito por la duda, el deseo y el saber.

Este encuentro es una invitación a compartir esas perlas. Proponemos detenernos, situarnos y mirar nuestras propias prácticas, dudas, deseos y metodologías en torno al cuidado. Será un cruce de cuerpos, preguntas y formas de hacer. Un espacio donde las perlas se articulen, se agrupen y se ofrezcan, no como objetos terminados, sino como semillas para futuras resonancias.



Encuentro EDT Topaketa. 2025.

EUS EDT topaketak hasieratik bultzatu dituzte ADDEko hezkuntza batzordeko kide batzuek: Aurten antolatzaileak Nuria Pérez, Cesar López eta Eusebio Soria dira.

Hainbat profesional gonbidatu ditugu praktikak eta hitzaldiak egitera, partekatzeko eta hausnartzeko. Gainera, dantzaren eta osasunaren, zainketen eta mugimenduaren inguruko eztabaida-taldeak sortu ditugu, era guztietako gorputzetarako eta gaitasun fisiko eta intelektualetarako.

EDT topaketetan, pertsonalki zein profesionalki hazteko aukera eman diguten esperientziak, ezagutzak eta ikaskuntzak partekatu ditugu. Hasieratik, gure helburua elkarrizketarako eta lankidetzarako espazio horizontal bat sustatzea izan da, eta oso eskertuta gaude ibilbide honetan elkarrekin lortu dugun guztiagatik.

ES Los encuentros EDT han sido impulsados desde sus inicios por algunos miembros de la comisión de educación de ADDE: Este año las personas encargadas de la organización son Nuria Pérez, Cesar López y Eusebio Soria.

Hemos invitado a realizar prácticas y charlas a distintas profesionales para compartir y reflexionar además de haber creado fóruns de discusiones en torno a la danza y la salud, los cuidados y el movimiento para todo tipo de cuerpos y capacidades físicas e intelectuales.

En los encuentros EDT, hemos compartido experiencias, conocimientos y aprendizajes que nos han permitido crecer tanto personal como profesionalmente. Desde el inicio, nuestro objetivo ha sido fomentar un espacio de diálogo y colaboración horizontal, y estamos muy agradecidos por todo lo que hemos logrado juntos en este recorrido.

EUS

Gorputz erabilgarria, mugimendu mekanikak.

Gorputz erabilgarria eta bere mekanika da urte hauetan zehar ikastaro, klase eta tailerretan egiten ari naizen lan fisikoaren ardatza. Nire irakaskuntza-lana bi sektore oso desberdinetara bideratu da, beren behar eta helburuetan: dantzari profesional gazteak eta 60 eta 80 urte bitarteko adineko pertsonen talde ez profesionalak.

Mecánicas traspasados los 60

2016az geroztik, 60 eta 80 urte bitarteko ikasleentzako ikastaroak ematen ditut. Gorputzen konplexutasun mekanikoak material dantzatzeko taulak garatzeko gonbita egiten du, modu seguruan indarra emateko gihar-taldeetan, koadripsetan, ipurmasailetan eta gerriko abdominalean.

Mugimenduak irudikatzen dituzten ekintzak deskribatzen dituzten hitzak erabiltzen ditut; horrela, egiten ditugun koreografiak eguneroko ekintzen hitzezko gidoia dute, eta horrek erraztu egiten du mugimendu koreografikoak kateatzen ikasteko lana, mugimendu horiek ez baitira isolatuta geratzen, baizik eta kode jakin baten parte izatera pasatzen dira.

ES

Cuerpo útil, mecánicas de movimiento.

El cuerpo útil y su mecánica es el eje del trabajo físico que vengo desarrollando a lo largo de estos años en cursos, clases y talleres. Mi trabajo docente se ha orientado a dos sectores muy diferenciados, en sus necesidades, y objetivos: jóvenes bailarines profesionales y grupos no profesionales de personas mayores de entre 60 y 80 años.

Mecánicas traspasados los 60

Desde 2016 imparto de manera regular cursos para alumnos con edades entre 60 y 80 años. La complejidad mecánica de sus cuerpos invita a desarrollar tablas concretas de material danzado que aporten fuerza en los grupos musculares de sujeción, cuádriceps, glúteos y cinturón abdominal, de manera segura.

Utilizo palabras que describen acciones que representan movimientos, de esta manera las coreografías que realizamos tienen un guion verbal de acciones cotidianas, esto facilita la labor de aprendizaje en la concatenación de los movimientos coreográficos, que no quedan aislados sino que pasan a formar parte de un código concreto.



EUS

IGOR CALONGE. Donostia - 1974. Hainbat diziplinatan dantzari gisa trebatua, bere ibilbide profesionala konpainia nazionaletan hasteko aukera du: Provisional Danza, Cía. Daniel Abreu, Cía. Fernando Hurtado, Hojarasca Danza, ehun eta berrogeita hamar soka, etab.

Garai horretan, Espainiako eta Europako eskola ospetsuetan trebatzen jarraitu zuen. Interprete gisa ibilbide luzea egin ondoren, 2001ean, formatu txikiko pieza koreografiko propioak sortzen hasi zen. 2009an, bere Cielo rasO konpainia sortu zuen.

2011. urteaz geroztik, dantzako eskola teknikoak ematen ditu aldizka profesionalentzat Dantzagunea Dantza Zentroan, Konpainiaren egoitza eta egiten ditudan prestakuntza-ekintzen sustatzaile den gunean.

Klase hauek berehala hartzen dute formazio iraunkorraren estatusa, eta dantzari gazteen harrobi bat formatzeko aukera ematen dit, Espainian, eta Europan, goi mailako eskoletan, entzunaldi profesionaletarako prestatuz, edo nire ekoizpen propioetan dantzari gisa prestatuz.

ES

IGOR CALONGE. San Sebastian - 1974. Formado como bailarín en diferentes disciplinas, tiene la oportunidad de iniciar su carrera profesional en Compañías Nacionales: Provisional Danza, Cía. Daniel Abreu, Cía. Fernando Hurtado, Hojarasca Danza, Ciento cincuenta cuerdas, etc.

En este periodo continúa también formándose en prestigiosas escuelas nacionales y europeas. Con una amplia carrera como intérprete, de manera paralela en 2001, comienza a crear sus propias piezas coreográficas de pequeño formato. En 2009, funda su propia Compañía Cielo rasO.

Desde 2011, imparte de manera regular clases técnicas de danza para profesionales en el Centro de Danza Dantzagunea, espacio sede de la Compañía y promotor de las acciones de formación que realizo.

Estas clases adquieren rápidamente el estatus de formación permanente, y me permite formar a una cantera de bailarines jóvenes, preparándolos para audiciones profesionales, escuelas de grado superior, en España, y Europa o como bailarines en mis propias producciones.

PREZIOAK eta IZEN-EMATEAK

praktika guztiak: 20€ ADDE eta EAB bazkideak -
50€ ez bazkideak

3 praktika: 15€ ADDE eta EAB bazkideak -
40€ ez bazkideak

2 praktika: 10€ ADDE eta EAB bazkideak -
25€ ez bazkideak

praktika 1: 5 € ADDE eta EAB bazkideak -
15€ ez bazkideak

Solasaldiak

Sarrera librea, aldez aurreko izena emanda.

Izen-emateak uztailaren 2tik 28ra

info@addedantza.org helbidean.

Beharrezkoa da inskripzioan adieraztea zein praktika/solasalditan ematen duzun izena.

PRECIOS e INSCRIPCIONES

todas las prácticas: 20€ personas asociadas a ADDE
y EAB - 50€ no socias

3 prácticas: 15€ personas asociadas a ADDE y EAB -
40€ no socias

2 prácticas: 10€ personas asociadas a ADDE y EAB -
25€ no socias

1 práctica: 5€ personas asociadas a ADDE y EAB -
15€ no socias

Charlas

Entrada libre con inscripción previa.

Inscripciones del 2 al 28 de julio en

info@addedantza.org

Necesario indicar en la inscripción las prácticas / charlas a las que te inscribes.

EDT 6 TOPAKETA ENCUENTRO

DANTZA, TERAPIA, MUGIMENDUA ETA OSASUNA

DANZA, TERAPIA, MOVIMIENTO Y SALUD

ADDE
DANTZA

**EDT 6 Topaketak, honakoen
laguntzarekin egiten dira //**

**Los encuentros EDT 6 se
realizan con la ayuda de**

